
BERSO BERRIK ANDRE BATEK JARRIK ERNANIKO BERRIK OSO ARGIGARRIK

Doinua: Ene Lukas maitea
Neurria: Zortziko txikia (hg). Lau puntuko txikia (ip)
Testuaren iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa



Joxepa Zubeldia Elizegi (1867-1947 Hernani, Gipuzkoa)

1918ko apirilaren 2an Hernanin gertatutako baztangaren matxinada kontatzen du. Lasarte eta Hernani inguruetan baztanga kasuak agertu zirenez, Gobernadoreak hainbat neurri hartzeko agindu zuen. Tartean, zazpi gaixo Hernaniko ospitalera eramatea, han hobeto isolatuta egongo zirelakoan.

Gaixo guztiak Hernanira ekarriz gero, gaitza bertan zabalduko zen beldurrak hartu zuen herria. Eragozteko, herritarrek bideak barrikadaz bete zituzten: gurdiz, upelez, egur-oholez eta bestelako tramankuluz. Hernaniko ospitalea ere erretzeko zorian egon ziren, eta guardia zibilei aurre egin zieten. Matxinadan asko ziren emakumeak, tartean Joxepa Zubeldia bera. Garaipena ospatzeko, ekainaren 1ean herri bazkaria egin zen eta Joxepa Zubeldiak, mahai gainera igota, sorta honetako 24 bertsoak kantatu zituen herritarren aurrean. Orduko hartan ere, seme-alabak lotsatu egin ziren amaren bertso jardunaz.

Hau da Joxepa Zubeldiaren bertso jarrietan gugana heldu den sorta bakarra. Joxepak anaiarekin bat-batean jarduten zuen eta sorta asko idatzi zituen bere idazmahai propioan, baina hil zenean alabek erre egin zituzten denak.

1 Apirilaren bian
Hernaniko **herria**
lau orduan egon zan
ikaragarria
karrasi* eta diarka*
orduko **larria**
eskerrak genduela
batasun **haundia**.

2 Orduantxe Hernanin
ez zan lo **jendia**
kanpana ta tronkua*
dantzatuak **dia**
tronko haundikin
itxi ziraden **bidiak**
barrika gurdi eta
asma al **guziak**.

3 Bidera atera ginan
emakume **asko**
ailegatu* baino lehen
egin degu **alto***
zibilak esan zigun
etxera **biltzeko**
bazutela baimena
odola **isurtzeko**.

4 Zibila franko baitzan
zaldi **galantakin**
guri desafioka
beren **ezpatakin**
ez ginan ez izutu
hoiek **guztiekin**
danok atera ginan
mirari **haundiakin**.

5 Mikela eta Asentxi
pareja **fuertia***!
Haiek aurren zirala
fin ginan **jendia**
zaharrak eta gaztiak
neskatxa eta **andriak**
andre txit* aberatsak
baita ere **pobriak**.

6 Horra bertso berriak
andre batek **jarri**
ez diot esker txarrik
ematen **inori**
orduko uniua*
beti da **komeni**
hala gerta dedila
biba gu ta **Hernani**.

* ***karrasi*** = *garrasi*
diarka = *deiadarka, oihuka*
tronkua = *enborra*
ailegatu = *iritsi*
alto = *geldialdia*
pareja fuertia = *bikote azkarra*
txit = *oso*
uniua = *batasuna*